



**BERBETAN: JOSE GABRIEL ALONSO** MUNICH JATETXEKO JABEA

**ERREPORTAJEA: JON SAN PEDRO, 30 URTE KARTZELAN** **BARKUA: DEUSTUKO JAI HERRIKOIAK OSPATU DITUGU!**

2-263-264-265-266



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**

urtean 25€









Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu



# aurkibidea

	Itsaso Larramendi Elexgaray - Garazi Perea	  	<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Bnina Abba Bulaih		<b>Gurera etorriak</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> JON SAN PEDRO, HOGEITA HAMAR URTE KARTZELAN <i>Martxoaren 9an bete zituen Jon Mirena San Pedro deustuarrok hogeita hamar urteko kartzelaldia. Ez ditu urte guztiak jarraian egin, baina kopuru horretara heldu da, alegia, dagokion espainiar legediak markatutako gehieneko langara. Lerro hauek idaztean, ostera, giltzapean segitzen zuen. Bere kasuak argi erakusten du oraindik ere euskal presoek ezartzen zaien salbuespen tratua. Une honetan deustuarra ez dago Espainiako auzitegiek jarri zioten kondena betetzen, inongo epailerik ezarri ez dion zigor erantsia sufritzen baizik.</i>			<b>6</b>
	Intxixu Ikastola		<b>Eskolak</b>	<b>10</b>
	Fraileneko mahatsondoak ebaki zituzten gaua (1878)		<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	Amama, irrifarreen Ondarea		<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> JOSE GABRIEL ALONSOekin <i>Jose Gabriel Alonso kantabriarra da izatez, baina bost urte zituela iritsi zen Bilbora. Txurdinagan bizi da geroztik, baina Deustu inguruan da ezaguna. 19 urte zituela, Madariaga etorbidean Munich banburgestatgia ireki zuen. Orain, 62 urterekin erretiratuko da, eta 44 urteren ostean, lokala jabe berri baten esku geratuko da. Deustuko ikur bihurtu den jatetxea belaunaldi askoren topagune izan da, eta Jose Gabrielelek zintzotasunez azaldu digu zer suposatu duen berarentzat.</i>			<b>16</b>
	Anexioaren aurkako sinadurak bilketa (1950)		<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>

**EUSKAL KULTURA** Libertimendua

**JAI HERRIKOIAK** Deustuko Jai herrikoiak ospatu ditugu!

**NUTRIZIOA** Ainhoa Maiztegi

**KULTUR TXOTX** Jon Intxaurrega eta Deustuko Ikastolako DBH1.mailako ikasleak



**barkua  
bete  
herba**

**24**

**Prest!**

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Idurre Villanueva Del Burgo

**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Idurre Villanueva Del Burgo

**Diseinua:** B05T

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01



**Itsaso Larramendi Elexgaray**

Hiriaz eta beste

## *Hormek diote*

“Babestu graffitia etxebizitza merkeago mantentzen du!”. Errotuladore beltza hormaren gainean, inolako apaingarri estetikorik gabe exekutatu. Alde Zaharreko horma batean irakurri daiteke esaldia, eta ezin hobeto sintetizatzen du egungo espazio publikoaren paradigma.

Manuel Delgadok azaltzen du hiri-hutsuneak izendatzeko erabiltzen den “espazio publiko” terminoak konnotazio etikoak dituela. Materializatzen duela filosofia politikoko “espazio publikoa”, gizarte anitzaren elkarbizitza baketsurako esparrua. Bertan ez du lekurik gatazkak, ezta arauak kontenplatu gabeko ezustekoek ere. 90eko hamarkadan orokortu zen terminoaren erabilera hirigintzaren esparruan, hiri-berroneratze operazio handiak orokortu zirenean. “Guggenheim efektua” deitzen zaio gurean.

Espazio publikoa da diseinatu, arautua, ordenatua, aurreikusgarria. Espazio publikoak handitzen du kalearen balio sinbolikoa, eta ondorioz, ekonomikoa. Desagerrarazi nahi du disidentzia eta inkonformismoa, baretu nahi du hiria. Horrek egiten baitu hiria salgarriago, tresna bat gehiago gure bizilekuen merkantilizatorako.

Espazio publikoan pintadek, *tag*-ek eta graffiti espontaneoek ez dute lekurik, bai ordea enkargupeko mural eta margoketek. Pintadek adierazten dutelako herritarrek nahi dutena bitartekaritza gabe, erraz eta merke eskura daitezkeen medioekin. Problematizatzen dutelako kontsentsua eta gehiengoaren diskurtsoa.

Babestu graffitia etxebizitza merkeago matentzen du!



**Garazi Perea**

Zergatik onartu ezarri dutena?



## *Edozein auzoko jaietan*

Ospatu berri diren Deustuko Jaiekin batera, Bilboko udaberri eta udako jaiak hasiera emango zaie. Auzolana, aldarrikapenak eta parte hartzea izango dira nagusi, elkarten eta herritarren borondatezko lanari esker. Ehunka lagunek parte hartzen dute jai batzordeen inguruan, eta haien ekarpena funtsezkoa da bizitza komunitarioan. Horregatik, ulergaitza da jai batzordeek jaiak antolatze hainbeste traba izatea.

Oso garrantzitsua da jai batzordeek beharrezko baliabide ekonomikoak izatea eta jarduerak antolatze baldintza egokiak bermatzea. Baina ez hori bakarrik, burokraziak eta oztopo administratiboek ez lukete auzoetako jaiak eta bizitza kulturala mantentzea zaildu behar. Auzoetako jaiak ezin dira

urtero kinka larrian egon: espazio publikoaren erabilera, baliabide materialak, ordutegiak... Udalak jai batzordeekin lankidetzat sustatu beharko luke, euren lana errazteko eta komunitatearen parte hartzea sendotzeko. Azken batean, jaiak ez dira soilik aisialdirako aukera bat; auzoen kohesioa, herritarren aktibazioa eta tokiko kulturaren transmisioa ere sustatzen dute.

Trabak jarri beharrean, jai batzordeen lana babestu eta aitortu behar da. Haien ekarpena funtsezkoa baita herri kulturaren etorkizunerako. Gure herriaren etorkizunerako.





## Bnina Abba Bulaih

**Jatorria:** Mendebaldeko Sahara

**Bizitokia:** Arangoiti

**Lanbidea:** erizaintzako laguntzailea



*“Nire jendea hemen dago, baita nire seme-alabena ere”*

### Noiz etorri zinen Arangoitira eta zerk ekarri zintuen?

2013ko urriaren 14an iritsi nintzen Arangoitira, baina estatura gaztetan etorri nintzen, haurdun nengoenean. Nik 1. motako diabetesa daukat eta Saharan oinarrizko zerbitzuak baino ez daudenez, Gurutze Gorriari esker estatuan artatu ninduten.

Asturiasen 6 hilabetez egon nintzen, eta han erditu nintzen nire lehenengo semeaz. Bisa amaitzean Saharara buelta egin behar nuen, baina Euskal Herrian nituen lagunak eta familia nitaz arduratu ziren. Horri esker ez nintzen itzuli behar izan.

### Hona etorri aurretik, ezagutzen zenuen zonaldea eta euskal kultura?

Betidanik ezagutu dut euskal kultura, nire aitak haren inguruan hitz egiten zidalako. Duela 74 urte, Saharako Ibilaldi Berdearen aurretik, EAEn egon zen lanean eta beti oso ondo hitz egin dit euskaldunei buruz. Esaten zidan, norbaiten konfiantza lortzen duzunean, betiko edukiko duzula. Aitak sortu zidan hemen bizitzeko nahia, entzundako guztia nire begiekin ikusi nahi nuelako.

Gainera, nik oso argi daukat: nire seme-alabak hemengoak dira eta beren hizkuntza ikasi behar dute.

Euskaraz ondo hitz egiten dute eta hori amets bat da niretzat.

### Zer harreman duzu euskararekin?

Oinarrizkoena, egia esan. Hitz solteak dakizkit. Hala ere, nire lankideekin beti saiatzen naiz euskaraz egiten, gehiago ikasi nahi dudalako. Hizkuntza pila bat gustatzen zait eta apurka-apurka aurrera egiteko asmoa dut.

### Zer antzekotasun eta alde ikusten dituzu Sahararen eta Arangoitiren artean?

Orokorrean alde handia dago bien artean. Zerbitzuez eta azpiegiturez gain, Saharan haimetan elkartzen gara, etxean. Hemen, berriz, jendea tabernetan batzen da, eta hori asko gustatzen zait.

Antzekotasunei dagokienez, bi kulturetan hurbileko jendearekin elkartzeko ohitura dago, eta errespetua eta maitasuna ezinbestekoak dira bietan. Eman egin behar da trukean jaso ahal izateko eta hori ez da aldatzen kultura batetik bestera.

### Zure jaioterritik zer duzu faltan?

Batez ere janaria eta nire gurasoak. Nire jendea dut faltan. Jada 15 urte pasa dira Saharatik joan nintzenetik eta bueltatzeko gogotsu nago. Oso gogorra da etxetik hain urrun egotea.

### Zure herrira bisitan joaten zara? Zenbatero?

Orain arte ez naiz itzuli, estatuan lan egiteko baimenari esker nituelako paperak. Duela gutxi espainiar nazionalitatea eskuratu dut eta horrek ate asko ireki dizkit. Dokumentu guztiak behar bezala ditut eta uda honetan etxera itzultzeko asmoa dut. Bakarrik hilabete baterako joaten banaiz ere, horrekin aski dut. Nire jendearekin eta kulturarekin birkonektatzeko tartea izango da eta benetan beharrezkoa dut.

### Gomendatuko zenioke Arangoiti zure hiriko norbaiti?

Jakina, beti ondo hitz egiten dut nire herriaz. Jada hemengoak sentitzen naiz eta badakit nire herriko pertsonak ere harrera beroa jasoko luketela. Ni bezala, oso zorionsu egongo lirateke hemen.

### Arangoitin betiko bizi nahiko zenuke?

Pila bat gustatuko litzaidake. Gutxi gorabehera bost urte daromatzat erosteko pisu baten bila. Izan ere, beste inon baino askoz gusturago bizi naiz auzoan. Nire jendea hemen dago, baita nire seme-alabena ere.



## JON SAN PEDRO, HOGEITA HAMAR URTE KARTZELAN

*Martxoaren 9an bete zituen Jon Mirena San Pedro deustuarrak hogeita hamar urteko kartzelaldia. Ez ditu urte guztiak jarraian egin, baina kopuru horretara heldu da, alegia, dagokion espainiar legediak markatutako gehienezko langara. Lerro hauek idaztean, ostera, giltzapean segitzen zuen. Bere kasuak argi erakusten du oraindik ere euskal presoei ezartzen zaien salbuespen tratua. Une honetan deustuarra ez dago Espainiako auzitegiek jarri zioten kondena betetzen, inongo epailerik ezarri ez dion zigor erantsia sufritzen baizik. Eta, egiari zor, bost urte dira horrela dagoela.*

Testua eta argazkiak: Hektor Ortega

Preso batek hogeita hamar urte kartzelan ematea albiste gogorra eta aztoragarria da, azken hamarkadetan ohikoa izan arren euskal herritar askok kondena luzeak betetzea giltzapean. Albistea da, mendeku mezuak zabalitzen dituzten gorroto-errotak “inpunitatea” eta “onurak” berbak hitzetik hortzera badarabiltzate ere. Horregatik albiste horrekin gatoz, deustuar batek egin dituelako 30 urte gatibu: Jon Mirena San Pedrok. Espainiako legearen arabera, ez zituen bete behar. Aitzitik, kalean behar zuen, aspaldian.

Espainiako kode penal zaharrak 30 urtetan ezarri zuen bete litekeen gehienezko kondena

efektiboa. Hori da Jon San Pedro deustuarrari dagokiona, leporatu zaizkion delituak kode hori indarrean zegoela egin zirelako. Bada, martxoan San Pedrok 30 urteko topea bete du. Presoak berak, senideek eta lagunek askatasuna eskatu dute, hala auzitegi espainoletan nola kalean (martxoaren 9an manifestazioa egin zuten Deustun) baina, lerro hauek idaztean, Basauriko kartzelan segitzen zuen deustuarrak. Beraz, Espainiako legearen arabera, une honetan, Jon San Pedrok Basauriko espetxean ematen dituen egunak ez dagozkio ezarri zioten kondenari. Inongo aginte judizialik ezarri ez dion kondena betetzen ari da.



Baina Jon San Pedoren kasua are krude-lagoa da. Izan ere, deustuarrak 2020an bete zuen bere kondena osorik. Kontua da bere kartzela urteetako batzuk (ia sei) Frantzian bete zituela. Europar Batasunak 2008an eman zuen zuzentarau bat Europako kartzeletan betetako kondenak estatu guztietan konputatzeko eta, horrela, zigortuek ez zezaten kondena bera birritan bete, estatu batetik bestera eramanez gero. Baina Espainiak ez zuen onartu nahi izan eta 2014ko lege batean Espainiako kongresuak, Europako irizpidearen kontra, beren-beregi salbuetsi zituen arau horretatik 2010 urtea baino lehen kondenatuak. Asmoa, argi eta garbi, euskal presoek kondenak luzatzea zen. Hiru urte ziren ETAK bere jarduna behin betiko utzia zuela. Espainiak Europako zuzentaraua bete izan balu, Jon San Pedro 2020tik libre egongo zen, kondena osoa beteta.

Jakina denez, iazko urrian Espainiako kongresuak Europako irizpide hori onartu zuen, azkenean. Legea azaroan sartu zen indarrean, eta, Jon San Pedrok dagokion auzitegian aplikatzeko eskatu badu ere, oraindik ez du erantzunik jaso. Esan bezala, deustuarrak kondena osoa beteta dauka eta aspaldi behar zuen kalean. Orain arte, Espainiako auzitegiek euskal preso bakar bati aplikatu diote lege berria. Donostiako Balbino Saenz Olarra martxoaren 7an

askatu zuten, horren ondorioz. Izan ere, espetxeetako agintariek eurek kalkulatu dute 2022ko abenduan bete zuela Saez Olarrak bere kondena osoa. Urte bi eta hilabete bi gehiago eduki dute giltzapean, nahiz eta egia den azken urteak etxean egin dituela, kontrol telematikoaekin. Donostiarrak eta deustuarrak gain, bada preso gehiago egoera horretan.

### **Bi alditan preso**

Saso batean, Lehendakari Agirre etorbidetan, Ibarrekolanda eta Bidarte bitartean, Salesianos en aurrean, pintaketa batek 200 metroko horma bat betetzen zuen bere mezua zabaltzeko: "Esta pared se mancha, mientras quede un preso en Herrera de la Mancha". Jose Maria Gorordo zegoen Bilboko alkate eta gurutzada bati ekin zion hormetako mezu aldarrikatzaileak ezabatzeke. Gurutzadak gurutzada, pintadak luzaroan iraun zuen. Gorordok dimisioa eman eta sei hilabetera atxilotu zuten Jon San Pedro. Hiru hamarkada geroago, bera izan zen Herrera de la Manchako espetxeke azken euskal preso. Pintada eta horma aspaldian desagertuta zeuden.

Jon San Pedro 1991ko ekainaren 6an atxilotu zuten Barakaldon. ETako Matalaz komandoko kidea zen. Gau hartan espainiar polizia baten autoaren azpian lehergailua



jarri behar zuten, baina kontrabigilantzia zerbitzuak detektatu eta atzeman zituen. Ondorengo bost egunak inkomunikatuta eman zituzten eta tortura latzak salatu zituzten. Orotara, sei lagun atxilotu zituen polizia espainolak.

Kontua da gutxitan gertatzen dena gertatu zela: epaitu barik lau urtez preso eduki ondoren (Carabanchel eta Puerto de Santa Marían), sei atxilotuetako lau, tartean San Pedro, libre atera ziren, preso dagoena-


lean Espainiaren esku utzi zuten. Auzitegi Nacionalean epaitu, eta 40 urteko kartzela zigorra ezarri zioten Barakaldoko poliziaren aurkako atentatu ahaleginagatik. Alcalá-Meco, Valdemoro, Navalcarnero eta Soto del Real (denak Madrilen), Jaen, Puerto de Santa María (Cádiz), A Lama (Pontevedra) eta Herrera de la Manchako (Ciudad Real) kartzeletan eduki zuten. Esan legez, San Pedro izan zen sinbolismoz betetako Herrera de la Mancha espetxeko azken euskal preso. 2021eko apirilean eraman zuten Dueñasera (Palentzia). Han urte bi egin zituen 2023ko martxoan Basauriko kartzelara ekarri zuten arte.

Espainiako espetxeetan egon bitartean,



ri epaiketa egiteko gehienezko epea (lau urte) gainditu zelako. Deustuarrak ihes egin zuen eta hurrengo urteak “sasian” eman zituen. 1999ko martxoan atxilotu zuten berriro, Parisen. Gaizkileen taldeko kidea izatea leporatuta, sei urteko kartzela zigorra ezarri zioten frantses auzitegiek.

Frantziako espetxetan (La Santé, Fresnes historikoa, Fleury, Tarascon, Marsella) kondena bete ondoren, 2004ko urtarri-



lehenengo graduan sailkatuta eduki zuten, euskal preso ia guztiak bezala. Presorik arriskutsuenei ezartzen zaien erregimen es-tua da eta ez zuten aldatu ez 2011n, ETAk behin betiko borroka armatua uztea eraba-ki zuenean, ez 2017an, armak Bakearen Artisauen esku utzi zituenean, ezta 2018an erakundea desegin zenean ere.

Jakina denez, euskal presoek dispertsioa ere ezarri zien Espainiak (eta Frantziak). Horren ondorioz, Jon San Pedoren se-nideek eta lagunak, edadekoek eta ume txikiek tartean, hiru hamarkadatan eginiko kilometro kopurua "izugarria" litzateke. Ikaragarria. Eta, dabilenari gertatzen zaio, epaiketarik gabe senideak eta lagunak errepidera kondenatzen zituen politika horrek istripu bat ekarri zuen ordainean 2019an. Kotxea zeharo hondatu bazen ere, autoan zihoazen lagun biak zauri arinekin atera ziren.

# 30 urte espetxean, Jon askatu orain!









### “Jostailuak nire bizitzan”

2. zikloan eta 5. mailan jostailuek genero-rolen eraikuntzan nola eragiten duten aztertu da, eta aukera aske eta baldintzapez gabeko baten garrantziaz eztabaidatu da. Helburua da ikasleak kontzientziatzea haurtzaroan jolasaren bidez indartzen diren estereotipoak gainditzeko behararen inguruan. Horrez gain, eskulan eder bana egin dute martxoaren 8a irudikatzen.

### Hezkidetzat tailerrak

Seigarren mailako ikasleentzat hezkidetzat-tailerrak antolatu dira, sexismoaren aurrean pentsamendu kritikoa modu praktikoan lantzeko. Hainbat dinamikaren bidez, gogoeta bultzatu da aukera-berdintasunari, elkarrekiko errespetuari eta haurtzarotik jokabide diskriminatzaileak desagerraraztearen garrantziaren inguruan.

### Ipuin kontalaria

Urtero bezala, laugarren mailako ikasleek ipuin kontalari baten bisita jaso dute, berdintasuna eta aniztasuna sustatzen duten istorioak partekatzeko. Esperientzia aberasgarria izateaz gain, narrazioaren bidez oinarritzko balioak barnertzen laguntzen die haurrei.

Martxoaren 8a Intxixu Ikastolan ospatzea berdintasunean oinarritutako hezkuntzarekin dugun konpromisoaren erakusle besterik ez da. Gure helburua da balio horiek egun bakar batean ez geratzea, baizik eta gure ikasleen egunerokotasunaren funtsezko zati bihurtzea, pertsona guztiek aukera eta eskubide berberak izango dituzten ingurune batean haz daitezen.



# FRAILENEKO MAHATSONDOAK EBAKI ZITUZTEN GAUA (1878)

*1878ko abuztuko goiz batean Deustuko Fraile baserriko bostehun mahatsondo ebakita agertu ziren. Kalte handia egin zieten hala baserriko errenteroari nola ugazabari. Inoiz ez zen argitu nork egin zuen, baina erasoaren atzean gatazka soziala zegoela pentsa genezake.*



Basabeko Fraile edo Fraileneko baserria, Bekosoloetatik ikusita.  
Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

**Testua:** Hektor Ortega

1970eko hamarkadan Linosen txakolindegia esaten zioten. Basabe auzoko azken baserria zen. La Salle ondoan zegoen eta, eraitsi ondoren, Basabe etxe-multzoa eraiki zuten bertan. Bada, etxe horrek izen andana eduki zuen XVII. eta XX mendeak bitartean: Basabe, Basabe Orue, Basabe Urkixo, Urkixo edo Urkixoena, Fraile edo Fraileneko...

XVIII. mendean baserria erre ostean berregin zutenean etxebizitza bi atondu zizkioten. Etxalde emankorra zen, lursail on eta zabalak baitzituen, gehienbat multzo bitan banatuta: Goikosoloak,

gaur egungo Madariaga etorbidearen iparraldean, eta Bekosoloak, Basabeko iturriaren inguruan (gaur egungo Basabe etxe-multzotik kanaleraino). Deustun ohi zen legez, soro haiek, batez ere, mahastiz beteta zeuden, txakolina egiteko, jakina.

1878ko abuztuak 26 zituen. San Bartolo egun hura astelehena zen. Ohi bezala, erromeria egin zuten Berrizen. Eta gauaz, baten batek Fraileneko soroetan bostehun mahatsondo ebaki zituen. Goikosoloetako batean egin zuen kaltea.

Fraile baserriko maizter bietako batek salatu

zuen gertatutakoa, Antonio Mentxakak alegia, lau egun geroago. Salaketaren ondorioz, ikuskapena egin zuten baina ez zuten ezer aurkitu soroan. Hala ere, argi zeukaten kalteak zerekin egin zuten: “con un cuchillo que los labradores llaman gurgullie”. Hala esaten zaio, hain zuzen, mahatsondoak inausteko lanabesari: gurguilu. Kaltearen zenbatekoa ere kalkulatu zuten. Mahastiak bost urtekoak ziren eta, hortaz, euren balioa 2.500 errealetan ezarri zuten. Eta kontuan hartu zuten dingilizka zeukaten fruitua -mahatsak batzeko aste gutxi falta zen-, “que será una pipa de chacoli tinto, su valor seiscientos reales”. Hortaz, orotara, 3.100 errealeko kaltea eragin zioten Frailenekoari.

### Susmagarria

Kaltetuak, Antonio Mentxakak, bazerabilen susmagarririk eta salaketa jartzean izena ere eman zuen: Nikolas Goioaga. Izan ere, Goioagaren izeko bat, Josefa Basañez, urte askotan Fraileneko erreteroa izan ostean, ugazabak bota berria zuen, beste bat sartzeko. Mentxakak kontatu zuenez, Goioagak behin baino gehiagotan zemaitsu zuen esanez “Fraileneko erreteroa zaharrak eta berriak larrutik ordainduko zutela eta odol malkoak isuriko zirela”. Maizter berria Jose Ibarra zen eta hark ere baieztatu zituen Goioagaren zemaia.

Salatutakoak dena ukatu zuen. Nikolas Goioaga baserriar txiroa zen, ondasunik bakoa. Astelehen hartako arratsaldean Berrizko erromerian egon zen eta gero Elexaldeko tabernara jaitsi zen. Han lagun artean egon zen, musean eta kantuan. Lekukoek baieztatu zuten.

Goioaga absolbitu egin zuten, frogarik ez zegoelako. Hortaz, ez dakigu Frailenekoren kontrako erasoak zer ikusirik ote zuen Josefa

Basañezen kanporatzearekin. Baina baliteke. Izan ere, urte hartako kontua zen. Ugazabak, Cecilio del Campo Galdamesko lur-jabeak eta buruzagi karlistak, Basañez salatu zuen udal auzitegian urte bi eta erdiko errentak zor zizkielakoan. Basañezek argudiatu zuen 36 urte zeramatzala base-rrian eta beti ordaindu zituela errentak. Gainera, berak ugazaba salatu zuen, bere maizter aldian etxaldean egindako hobekuntzak (ereindako landare berriak eta landutako soro berriak) kobratu nahi zituelako.

1879ko martxoan atera zen auziko sententzia. Basañezek zor zituen errentak (2.551 erreal) ordaindu behar izan zituen eta, jakina, baserritik kanpo gelditu zen. Baina Cecilio del Campok ere hobekuntzen ordaina (15.287 erreal) eman behar izan zion Basañezi.

Gatazka honetan ezaugarri esanguratsuak igar daitezke, nahiz eta ez dakigun noraino diren errealitate zabalago baten ispilu. Batetik, Josefa Basañez bezalako erreteroeak urte asko egiten zuten baserri batean. Egonkortasun hori haien indarraren erakusgarri izan daiteke. Are gehiago jakin eta gero bitarte horretan (gutxienez 1844 eta 1877 bitartean) errenta ez zela igo. Maizterra kaleratzeko, ugazabak salatu behar izan zuen, eta auzia irabazi. Eta irabazita ere, erreteroeak bazeukan urte luze horietan etxaldean egindako hobekuntzak erreklamaterik. Alegia, Basañezen kanporatze horrek erakusten du XIX. mendeko bigarren erdialdeko Deustuko maizter batzuek nahiko bitarteko zituztela haien eskubideak defendatzeko ugazaben aurrean. Eta galduz gero, agian, “ekintza zuzena”ren aukera ere ez zeukaten oso aparte.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





*Pasa den martxoak 2, igandea, Amama, irrifarreen ondarea izeneko antzezlanaren estreinatu zen Deustuko Erriberako Pabelloi 6 aretoan, 12:00etan. Amamaren omenez sortutako lanak izan duen harrera ezagutzeko, Ugaitz Alegria zuzendariarekin hiztetan aritu gara.*

**Testua:** Idurre Villanueva

**Argazkiak:** Ilara

Martxoaren 2an, Deustuko Erribera auzoako Pabelloi 6 aretoan, *Amama, irrifarreen ondarea* antzezlanaren estreinatu zen, 12:00etan. Eidabe kultura-esparruko erakundeak ekoitzita, umeei zuzendutako lana da, eta 50 minutuko iraupena du. Aizpea Goenaga donostiarra da antzezlanaren idazlea eta zuzendaria, eta Ugaitz Alegria ondarrutarra, berriz, zuzendaria. Ikuskizunaren helburua amamak omentzea da, baita belaunaldien arteko transmisioari garrantzia ere ematea.

Istorioaren protagonista zortzi urte dituen Lea da eta, Ugaitzen hitzetan, ibilbidea honakoa litzateke: “Lea eta bere ama bakarrik bizi dira. Leak ez dauka amamarik, eta bere ikaskideek badutela ikusita, premia edo gabezia hori betetzeko amama baten bilaketan hasten da”. Leak amari plazaratzen dio duen beharra, baina hark kasurik egiten ez dionez, iragarki bat idazten du jendeak jakin dezan amama bat bilatzen dabilela. Horri esker, hautagai asko agertuko zaizkio, baina ez ditu aukeratuko, “oso eredugarriak ez

direla konturatuta”. Azkenean, bere goiko aukididea den Itziarri eskatuko dio bere amama izateko. Ugaitzek azaldu duenez, Leak ikusten du Itziar berarekin jolasteko, magia egiteko eta dantzatzeko prest dagoela, beste hainbat gauzaren artean, eta horri esker asko konektatzen du harekin.

Bi aktore dira istorioaren protagonistak gorpuzten dituztenak: Itxaso Gilek Learen papera egiten du eta Nagore Gonzalezek gainontzeko pertsonaiei ematen die bizitza.

*Amama* izeneko antzezlanaren sortzeko ideia aspaldikoa da, Deustuko Erriberako umeekin antzerki ekintza bat egin zenean. Umeei amonen inguruko pieza bat egin behar zuten, eta ekintza bideratzen zuten Eidabeko kideek zera ikusi zuten: amona ezagutu izan ez zuten haurrek ez zuten hari buruzko informaziorik. Beharrian hori ikusita, kideetako bati amamak omentzeko antzezlan bat sortzea bururatu zitzaion.

# FARREEN ONDAREA

Hori dela eta, Eidabetik Ugaitz Alegria zuzendaria kontaktatu zuten, eta berak proposatu zien Aizpea Goenaga idazle izateko: “Aizpearekin beste alor batzuetan ere elkarlanean ibilia nintzen eta, gainera, bera ere amama izan berri zen une hartan”. Bada, Ugaitzi Aizpea pertsona aproposa iruditu zitzaion proiektuan sartzeko. Hark ere baietza eman ostean, antzezlanaren idazketan eta moldaketan aritu ziren denbora luzez, pasa den hilabetean ikuskizuna aurkeztu zuten arte.

Martxoaren 2ko estreinaldira joan zirenek aurretiazko gonbidapena jaso zuten eta, Pabelloi 6ko aretoa ia guztiz bete zuten. Ugaitzi galdetu diogu ea estreinaldirako urduritasunik sumatu zuten, eta erantzuna argia izan da: “Lasai gindoazen aurre estreinaldia oso ondo joan zelako eta seguru geundelako egindako lanarekin”. Izan ere, otsailaren 24an, astelehena, Deustuko Erriberako eskolako umeekin egon ziren Erriberan bertan, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako umeekin, hain zuzen ere. Astelehen hartako ikuskizuna proba moduko bat izan zen, jendeak nola erantzungo zuten jakin ahal izateko. Zuzendariak aipatzen duenez, antzezlanak “oso-oso ondo” funtzionatu zuten

eta ikusle txikiek neurritz jokatu zuten: “Tarteka barreak entzuten ziren, baina ostean esaten zuten hunkitu ere hunkitu egin zirela”.

Estreinaldian, aurre estreinaldian gertatu zen moduan, ikusleriaren erantzuna egundokoa izan zen. Gainera, Ugaitzek nabarmendu du martxoaren 2ko antzezlanean isiltasun handia hautematen zela, “askotan umeen ikuskizunetan gertatzen ez dena, egonaldia luzeegia egiten zaielako”. Adin askotako haurrak egon ziren, eta zuzendariak igarri zuen ikusleak adi eta polito egon zirela. Horrez gain, Ugaitzek dio bai sare sozialetatik, bai aurrez aurre ere jaso zituzten mezuak oso positiboak izan zirela: “Ez nuen uste halakorik gertatuko zenik, baina ikuskizunetik ateratzean batek baino gehiagok esan zidan hunkitu egin zela edota malkoa atera zitzaiola, eta pozgarria da hori jakitea”.

Martxoan zehar, orotara hamaika emanaldi egon dira EAEko hainbat herritan, eta antzezlanaren ikusteko gogotsu daudenentzat berri on bat dugu: Eidabek datozen hilabeteetan data gehiago eskainiko ditu *Amama, irrifarreen ondarea* ikuskizunaz gozatu ahal izateko.



# berbetan

JOSE GABRIEL ALONSOrekin

MUNICH JATETXEKO JABEA

*“Ostalaritza eman eta jasotzea da, eta*

*Jose Gabriel Alonso kantabriarra da izatez, baina bost urte zituela iritsi zen Bilbora. Txurdinagan bizi da geroztik, baina Deustu inguruan da ezaguna. 19 urte zituela, Madariaga etorbidean Munich hanburgestatgia ireki zuen. Orain, 62 urterekin erretiratuko da eta 44 urteren ostean, lokala jabe berri baten esku geratuko da. Deustuko ikur bihurtu den jatetxea belaunaldi askoren topagune izan da, eta Jose Gabrielelek zintzotasunez azaldu digu zer suposatu duen berarentzat. Elkarrizketan, bere ibilbidea eta etorkizuneko planak partekatu dizkigu.*



# *nire bezeroez eta nire herriaz oso harro nago”*

## **Nola bururatu zitzaizun lokala irekitzea ia duela 45 urte?**

Nik Deustuko hizkuntza-eskolan ikasten nuen eta noizean behin pira egiten nuen. Horietan, klasekideak inguruko tabernetara joaten ginen eta konturatu nintzen ostalaritzako giroa asko gustatzen zitzaidala. Nire koinatuari esker Bartzelonan zerbitzari moduan hasi nintzen, baina hemen hanburgesia bat irekitzeko asmoa nuen oraindik ere. Lagunek lokal hau alokatzen zela esan zidatenean, jakin nuen hemen jatetxe batek oso ondo funtzionatuko zuela, oso eremu ona baita. Hala, segituan bueltatu nintzen Bartzelonatik, ez nuen bi aldiz pentsatu.

## **Nola izan zen hasiera?**

Ez nekien ezer ostalaritzaren inguruan, huts-hutsean nengoen. Zerbitzari bat eta plantxan aditua zen sukaldari bat kontratatu behar izan nituen. Apustu handia izan zen, eta 19 urte besterik ez nituen arren, oso ondo atera zitzaidan. Lehen lantaldea lau lagunek osatu genuen eta inguruan jende asko ibiltzen zenez, hasieratik izugarri lan egin genuen. Arratsalde-gaueetan bakarrik irekitzen genuen, baina ez genuen itxiera ordurik. Pandemiaren ostean, eguerdian ere irekitzen hasi ginen, baina oraindik kostatzen da.

## **Zergatik aukeratu zenuen Munich izena? Zertan oinarritzen da?**

Izenak hanburgesaren jatorriari egiten dio erreferentzia. Askok pentsatzen dute

amerikarrek sortu zutela, baina ez da egia. Hanburgesa Alemaniatik dator, Hanburgotik. Hala ere, ‘Hanburgesia Hamburgo’ ez zen ondo geratzen, izenek talka egiten zuten. Horregatik, beste hiri alemaniar bat bilatu nuen, eta Munich bururatu zitzaidan. Izena jartzerakoan, jendeak produktuaren jatorria ezagutzea nahi nuen.

## **Irekieratik izan zenuten arrakasta ala poliki-poliki handitu zen bezero kopurua?**

Hasieratik izugarrizko arrakasta izan genuen, nahiz eta beste hanburgesategi batzuk baziren ordurako. Galerietan bi zeuden, izkinatik hurbil beste bat, parean beste bat... Hainbat lokal ginen, baina 80ko hamarkadan gaueko giroa oso bestelakoa zen. Klean mugimendu handia zegoen eta horri esker, hasieratik ondo funtzionatu genuen. Bezeroen harrera zoragarria izan zen.

## **Zein izan zen hasierako erronka nagusia eta nola gairitu zenuen?**

Erronkarik handiena zer eskaini behar nuen jakitea izan zen. Azken finean, zer egin behar nuen. Horretarako, denbora zeramaten jatetxeen kartak aztertzen hasi nintzen, eta horrek lagundu zidan negozioari zer norabide eman nahi nion argitzen. Beti sinpleena eta funtsezkoena eskaini dugu, baina kalitate handiko produktuak erabiltzen ditugu. Niretzat kalitatea gauza garrantzitsuenetakoa da. Garestiagoa da, baina bezeroek igartzen dute.

**“Izena jartzerakoan, jendeak hanburgesaren jatorria ezagutzea nahi nuen.”**

# D

## berbetan

JOSE GABRIEL ALONSOrekin

### ▷ ▷ SAKONEAN

#### **Zeintzuk izan dira Munichen bizi izan duzun une hunki-garriena edo bereziena?**

Nire emaztea ezagutzea, zalantzarik gabe. Berak Munichetik hurbil dagoen klinika batean egiten zituen praktikak, eta Campo Volantinen ere erizaintzako laguntzaile izateko ikasten ari zen. Askotan pasatzen zen hemendik eta egun batean zurito bat hartzera gelditu zen. Sartu bezain pronto bere edertasunak txunditu ninduen, liluratuta geratu nintzen. Bigarren zurito bat eskaini nion, eta hortik aurrera hitz egiten hasi ginen. Hasieran lagun moduan ezagutu genuen elkar, eta gero maitemindu egin ginen. Oso une polita izan zen.

#### **Urte hauen guztien ondoren, zer egiteko asmoa duzu erretiroa hartzen duzunean?**

Niretzat garrantzitsuena bitzita aktibo bat izaten jarraitzea da. Ez dut bizimodu sedentarioa izan nahi, nahiz eta hala ez iruditu, ostalaritzan jardutea oso lan gogorra baita. Txikikeria dirudien arren, benetan estresagarria da eta fisikoki zein mentalki aktibo egon behar da. Ez dut estres horrekin jarraitu nahi, baina bai jarduera fisikoarekin. Adibidez, mendia eta gimnasioa asko gustatzen zaizkit, eta denbora horretan ere inbertituko dut.



Dena den, beti eskaini dugu gauza bera: letxuga, tomate, tipula, maionesa, gazta, hirugiharra eta arrautza. Nik "sota, caballo, rey" arrakasta deritzot. Betiko eskaintza mantendu dugu, eta horrela izaten jarraituko du.

#### **Nola aldatu da karta denborarekin? Badago hasieratik aldatu ez den produkturik?**

Bai, hasieratik ia eskaintza bera mantendu dugu. Oinarrizko hanburgesak beti egon dira, alemana, holandesa eta a caballo, alegia. Horrez gain, produktu gehienek berdin jarraitzen dute: txahal-pepitoak, hirugiharra daramana, solo-mo-bokatak, gazta daramana, sandwich mistoak... Egia da kartan gauza berriak gehitu ditugula, baina oinarriak betikoak dira. Gure produktuaren aldeko apustua egiten dugu.

#### **Zerk bereizten zaituzte gainontzeko hanburgesategietatik?**

Uste dut nabarmenena tratu familiarra dela, bezeroarekiko dugun gertutasuna. Hainbeste urteren ostean, atletik sartzan diren unean badakit bezeroek zer eskatuko duten. Are gehiago, batzuek esaten didate: "Jose, ez dakit zer eskatu". Kasu horietan, nik gomendatzen diet zer hautatu eta konfiantza osoz onartzen dute. Gerora, lehen aipatu dudan



bezala, kalitateak ere bereizten gaitu gainontzeko hanburgeserietatik. Kalitatea niretzat ezinbestekoa da eta beti azpimarratzen dut.

### **Uste duzu berrikuntza guztien artean kalitatezko hanburgesa tradizionala galtzen ari dela?**

Bai, guztiz. Egia da ondo dagoela beste batzuk probatzea alderatu ahal izateko. Hala ere, gazteek sarri probatzen dituzte modan dauden produktuak, eta gero gurera itzultzen dira esanez betiko hanburgesa nahiago dutela. Uste dut tradizioaren esentzia asko galdu dela eta pena handia ematen dit.

### **Esaten da maitasuna eta lana bereizi behar direla, baina zu urte luzez aritu zara zure emaztearekin lanean. Esperientzia ona izan da?**

Guk elkarbizitza oso-oso ondo eraman dugu egunerokoan. Egia da ez dugula seme-alabarik, eta horrek asko eragiten du. Horri esker, hainbat eztabaida edo arazo saihestu ditugu. Dena dela, azken finean, esan daiteke lokala izan dela gure semea. Orain nire emaztea jubilatuta egin da, baina beti eraman dugu lana etxera, nahi gabe izan bada ere. Lanagatik eztabaidaren bat izan dugu, normala den bezala, baina gure harremana zoragarria izan da eta ez nuke ezer aldatuko.

### **Munich Deustuko identitatearen parte da. Zer sentiarazten dizu horrek?**

Harrotasun handia. Inguruko jendeak asko estimatzen nau eta ikusten dut jatearek ere benetako maitasuna diotela. Horrek oso

zoriontsu egiten nau, nik ahal dudan guztia eman didala sentitzen dudalako. Azkenean, eman eta jasotzea da, eta nire bezeroez eta nire herriaz oso harro nago.

### **Zer da bezeroek gehien baloratzen dutena?**

Kalitateaz gain, familia-giroa eta tratua pertsonala. Gainera, uste dut establezimendua bera ere erakargarria dela. Lokalak duen retro edo *vintage* ukitua asko gustatzen zaio jendeari, eta Interneten ere hala islatzen da: 5etik 4,6ko puntuazioa dugu eta agertzen diren iruzkin gehienak positiboak dira. Beti egon daiteke kebaren bat, baina oso harro nago lortutakoarekin.

### **Zer moduz hartu dute bezeroek zure erretiroa?**

Oso gaizki. Denek esaten didate ezin dela izan, ez dudala utzi behar. Nik lasaitzeko esaten diet, guztiak berdin jarraituko due-lako, baina zalantza izateak amorruta ematen dit. Askotan, lokalaz arduratuko den neska ondoan egoten da, eta pena handia ematen dit jendearen zalantzak entzun behar izatea. Hala ere, ziur nago tradizioa mantenduko duela eta gainera, ez naiz negoziotik guztiz aldentuko. Itzalean arituko naiz jabe berria laguntzen.

### **Aurrerantzean nor arduratuko da negozioaz?**

Munichen bost urte daramatzen langile batek hartuko du kargua. Badaki guztiak nola funtzionatzen duen eta konfiantza osoa dut harengan.

**“Betri simpleena eta funtsezkoena eskaini dugu, baina kalitate handiko produktuekin.”**





HEZKUNTZA

## San Inazioko HLHIk 39 plaza berri eskainiko ditu Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntza publikoa eta doakoa unibertsalizatzeko bidean, Bilboko Udalak eta Haurreskolak Partzuergoak lankidetzaren protokolo orokorra onartu dute. Horri esker, 0-2 urteko zikloan 195 plaza berri sortuko dira. Hitzarremenaren helburuak hauek dira: familientzako plaza gehiago bermatzea eta adin txikietatik hezkuntzarako sarbidea erraztea. Ekimenari esker, San Ignazio HLHIk Haur Hezkuntza zikloko eskaintza zabalduko du. Hiru gela berri prestatu dira bertan 39 plaza gehiago eskaintzeko. Plaza horiek 2025eko otsailean ireki dira; hori dela eta, eskaintza zabalten lehen eskola izan da.



MERKATARITZA

## Paragüería Bilbaína Deustura itzuli da, “betiko” dendara

Paragüería Bilbaína, euritako eta eguzkitakoen artisau-fabrika ospetsua, berriro ere Deustuko Lehendakari Agirre 24. zenbakian kokatuko da, bere historia luzean zehar izan duen betiko dendan. Denda 1950ean sortu eta 2020an itxi zen, baina orain berriro irekiko da, eta betiko itxura eta giroa izango du. Horrekin batera, Prim kalean zegoen lantegia denda berriaren atzeko lokaletara lekualdatuko da, ekoizpena eta salmenta leku bakarrean batzeko. Aldaketa errazteko, Agustín Hervella jabeak likidazio-salmentari ekin dio eta bezeroentzako kalitateko euritakoak prezio merkeetan eskaintzen ditu.



GIZARTEA

## Deustuko Erriberak kirolgunea behar du

Pasa den martxoaren 1ean, Deustuko Erriberako auzo elkarteak, Bizinahi auzogune autogestionatuak eta Txintxardin Jai Batzordeak prentsaurreko bat egin zuten Yolanda Gonzalez plazatxoan (Deustuko Erribera kalea 57). Elkarretaratzearen bitartez, bizilagunek kirolgune baten beharra aldarrikatu zuten, eraikuntza berrien ondorioz, kirola egiteko lekurik gabe geratu baitira. Elkarretaren hitzetan, udala arazoaren jakinaren gainean zegoen, eta “arrazoia eman zien arren”, oraindik ere egoerak berdin jarraitzen du. Hori dela eta, bizilagunek Inauteriak aprobetxatu zituzten eskaerarekin bat egiteko eta bizi kalitate duina aldarrikatzeko.








HIRIGINTZA

## Deustuko suhiltzaileen parke berria Ibarrekolandan

Bilboko Udalak Deustuko suhiltzaileen parke berria eraikiko du Ibarrekolandan, Morgan kalearen eta Kanaleko pasealekuaren artean. Kokaleku estrategiko honen helburua estaldura azkar eta eraginkorra bermatzea izango da, eta lanak urte amaieran hastea aurreikusten da. Proiektuak 13,5 milioi euroko inbertsioa jasoko du eta eraikuntza-prozesuak 28 hilabeteko iraupena izatea aurreikusten da.

Parke berriak 3.760 metro koadroko azalera izango du eta hainbat egitura barne hartuko ditu: administrazio-eraikina, suhiltzaileen prestakuntza-dorrea, hangarrak eta maniobra-eremua. Horrez gain, suhiltzaileen historia erakusteko espazio bat ere egongo da, zerbitzuko piezak eta ibilgailu historikoak ikusi ahal izateko, eta sarrera irekia izango da herritarrentzat.





Gumerinetxe etxea (sendaezinengatik ezaguna), Ibarrekolandan. Bilbao-Goyoaga familiarena izan zen.

Urtea: 1950

Txema Luzuriaga

## *Anexioaren aurkako sinadurak bilketa*

Deustuko Elizateak sinadura-bilketa bat egin zuen udalerriko bizilagunen artean eta horri esker, zenbait puntu jorratzen zituen testu bat izenpetu zen: horien artean agertzen ziren udal mugarik ez egotea, udalerriak barne arazo larriei aurre egiteko zuen gaitasuna, uren kontua eta anxioarekin Udalak Elizateari eskaintzen zion zuzeneko arreta desagertuko zela. Dokumentu hori Gobernaziora bidali zen, eta bertan hurrengo enpresen sinadurak agertzen ziren: Deustuko tailerrak, Goi Mailako Ikasketen Ikastetxea, María Echevarrietaren Kartoiari Biltegia, Gaminde Anaiak, Oxigeno Konpainia Nazionala, San Vicente de Pauleko Langileen Patronatua, Deustuko Merkataritza Unibertsitatea, Aldecoa Anaiak eta beste hainbat. Udal Estatutua 1924ko apirilaren 1ean jarri zen indarrean eta, horri esker, elizateetako udaletako batzorde ofizialek ez zuten hainbeste oztoporik izan lan egiterakoan. Egun horretan bertan, Estatutuan zehaztutakoari jarraitzen zion azken udala eratu zen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

**blb:** BILBOTARRON  
ALDIZKARIA  
BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.  
Ramon y Cajal 42, behea  
48014, Deustua  
admnrstr.blb@gmail.com | 944471042

**YVES ROCHER**  
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303




**ATXURI  
TABERNA**

Luzarra 1  
Deustu

**946 75 40 17**

Iragar zaitez  
**Prest!**-en

tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Alonso Pertsianak**  
Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com



**Optica  
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfnoa:  
SAN INAZIO **94 475 11 24**



**Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburutenda**  
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

**Eintoreria  
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu



**artez**  
euskara zerbitzua

**Probatu herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

ERROZ JARRABAZIA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu  
aek ■ euskaltea**

Matrikula zaitez! 

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net


**RONDOKO  
HORTZ KLINIKA**

**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia

PADI  
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97



**Bitxidenda**

**Sabin  
Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS  
KM  
CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23






# Gogoratzen duzu Deustuko Jairik euririk gabe?



## Nerea Deustu

Bizitza osoa daramat hemen eta betidanik egin du euria. Hala ere, niri euriak ez dit bereziki molestatzen. Dagoeneko zerbait errepresentatiboa dela iruditzen zait, Deustuko Jaien nortasunaren parte da. Niretzat gainera, euria kontu psikologikoa da: hiru kubata edan, kuadrillako jertsearen txanoa jantzi, eta aurrera!



## Esteban Deustu

Ez dut euririk gabeko jairik gogoratzen, baina astebete baino gehiagoko festak direnez, ez da harritzekoa. Hala ere, gaur egun dena hobeto prestatuta dago euriari aurre egiteko: adibidez, Done Petri plazako aterpea benetan eskertzekoa da. Gainera, konturatu naiz garai batean kuadrillek kamisetak egiten genituela, eta orain, gazteek txanodun jertseak aukeratzen dituzte. Esperientziatik ikasten ari garela esan daiteke.



## Oihan Deustu

Nik gogoratzen ditudan euririk gabeko jai bakarrak Covid garaian izan ziren, eta ez ziren ospatu. Hortaz, egon diren jai guztietan euria gogoratzen dut. Niri ez dit gehiegi eragiten, paella egiten ari garenean izan ezik. Kasu horretan, bi aukera besterik ez daude: euritakoarekin paella estaltzea edo arrozari ur gehiago gehitu behar ez izatea.



## Aimar Deustu

Atera behar nintzen lehen urtean, justu Covidak harrapatu gintuen, eta ezin izan nuen Deustuko jai eguzkitsurik bizi. Egia da beti egin digula euria eta, nahiz eta gabe erosoago aterako ginatkeen, ez zaigu axola. Deustuko jaietan beti ondo pasatzen dugu, busti-busti eginda egon arren.



## Garoa Deustu

Beti egiten du euria. Hemengoak garenok badakigu Deustuko Jaiak datozenean euria egingo duela, baina ohitu egin gara. Egunez egun moldatzen gara, eta txubaskeroa atera behar badugu edo txosna azpian sartu behar bagara, ez dugu arazorik. Gainera parrandan gaudenean, bost axola zaigu euria.



## Oihana Deustu

Deustuko jaietan euria egiten duenean, ia beti, kuadrillakoek txubaskeroa jantzen dugu. Euritakoa ez dugu ateratzen, eskuan eramatea deserrosoa delako, baina txubaskeroarekin ondo moldatzen gara. Nik, adibidez, euria baino, hotza sufritzen dut. Hala ere, alkohola lagungarria izaten da horri aurre egiteko.



# Libertimendua

>> EUSKAL KULTURA

## LIBERTIMENDUA



Argazkia: Bob EDME

**Testua:** Antxon Agirre Ibarra

“Negua joan da ta” eta “Udaberria datorrenean” abestiek dioten bezala, Euskal Herri luze eta zabalean hainbat modutan antolatzen ditugu inauteria ospakizunak. Neguko solstiziotik udaberriko ekinoziora doan aroko eritualdi luzeari deritzogu eta garai honetan, “Libertimendua” izeneko artedramak loratu egiten dira. Izan ere, gutxienez zortzi libertimendu izan dira aurtengo inauterietan Nafarroa Beherean, Lapurdin, Nafarroan zein Gipuzkoan.

Baina zer da “Libertimendu” bat? Ikuskizun bat baino gehiago. Antzerkia, musika, dantza eta bertsoa uztartzen dituen jokoa da. Libertimenduak, herrietako harremanak erregulatzeko eta egitura-tzeko tresna dira. Espazioa hartzea, komunitate harrotzea. Kritika eta umorerako eremu, gazteak eta euskara protagonista izanik.

Errito hauetan bi mundu ikus ditzakegu aurrez aurre. Batetik, mundu antolatua; eta bestetik, bazterreko talde ilunak. Lehenak udaberriari deika aritzen dira; bigarrenak, berriz, neguaren irautea bilatzen dute.

Antzezleak, zirtzilak dira. Talde iluna. Hitzaren hartzea dutenak. Herriko gazteak dira, boteretik gabekoak, baina ordubetez boterea hartzen dutenak

plazan. Urte horretako gertakari lokalak gaitzat hartuta, komunitate horretako erreferentziako pertsonen kritika sozialerako unea izaten da.

Dantzariak bolantak dira. Talde argia. Musikaren laguntzaz gramatika propio bat adierazten dutenak, makila dantzak zein jauziak tartekatuz.

Bertsolariek rol berezi bat dute. Goizean zeharreko kabalkadan geldiuene bakoitzean, bertsoz zirikatzen dute giroa, eta ondoren, plazako emanaldian azal dutako gaiei eutsi eta beraien begiradatik kantuz mamitzen dituzte bertsoak.

Biribil baten bueltan sortzen da eztanda, hau da, ertz guztiak dira aurreak eta mikrorik gabe ibiltzen dira zirtzilak. Herri horretako komunitateko kideek ikusteko helburuarekin jaiotzen da. Ez du beste ikusle xederik, ez du zerbait handia izan nahi. Izan ere, auzo bakoitzean egin beharko litzatekeen ariketa interesgarria da.



**Bilboko Udalak BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA  
POESIA SARI**aren 18. edizioa abiarazi du



## **BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA 18. POESIA LEHIAKETA**

**18º PREMIO DE  
POESIA BLAS DE  
OTERO - ÁNGELA  
FIGUERA**

**2025**



Bilboko Udalak eta Blas de Otero Fundazioak Blas de Otero eta Ángela Figuera poeta bilbotarrak omentzen dituen Poesia Sariaren 18. edizioa deitu dute. Lehiaketaren deialdia martxoaren 15ean ireki zen, eta parte hartu nahi duten egileek maiatzaren 30era arte dute haien lanak aurkezteko. Saria bi modalitatetan banatuko da, euskarazko eta gaztelaniazko poema-liburuentzat, eta bakoitzak 5.500 euroko ordainsaria jasoko du, lanaren argitalpenaz gain.

Lehiaketan 18 urtetik gorako edozein nazionalitate edo bizilekutako pertsonak aurkeztu ahal izango dituzte beren lanak. Obrek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ezin izango dira aurretik

saritutako lanak izan. Parte-hartzaileek PDF formatuan aurkeztu beharko dituzte haien idatziak: luzera gutxienez 500 bertso-lerrokoa da eta gehienez 1.000koa. Gaia, errima eta neurria askeak izango dira.

Lanak online bidali beharko dira. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko, parte-hartzaileek Bilboko Udalaren ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)) edo Blas de Otero Fundazioaren webguneetara jo behar dute.

Aurreko edizioan 1.000 lan baino gehiago aurkeztu ziren. Antolatzaileek aurreko ere parte-hartze handia espero dute eta literaturazaleak parte hartzera animatzen dituzte.



# harkua bete herba

>> JAI HERRIKOIAK

## DEUSTUKO JAI HERRIKOIAK OSPATU DITUGU!

*Aurten ere, Deustuko jaiak benetan bereziak izan dira. Betiko moduan, aniztasuna eta elkarbizitza izan dira nagusi, baina benetan aurtengo jaiak nolakoak izan diren jakiteko, ez dago hoberik txosna jarri duten zazpi eragileen sentsazioak ezagutzea baino.*

### Arranopola

Astelehena da, Deustuko Jaiak bukatu ziren atzo, eta errutinaren morroi bilakatu naiz berriro: garbigailua jarri, harrikoa egin, etxea txukundu, lanera itzuli... Ingurukoek pentsatu dute astelehen arrunta dela niretzako, baina oraindik ez didate ahots urratua igarri, ez dute ikusi esekitokian zintzilik daukadan sudadera morea, harraskan dudan plastikozko edalontzi-pila. Irribarra ezkutatu ezinik nabil Arranopolarekin jaietan zehar izan ditudan momentuak gogora ekartzean: txosnaguneko dantzak, bazkarietako elkarriketak, herriko tabernako kantuak, playbackeko barreak...

Egia esan, ederra da, errutinaren morroi bilakatzea nahi gaituzten mundu gris honetan, egoteko eta egiteko beste modu bat eskaintzen dizun konpartsa bat izatea. Ederra bezain ezinbestekoa da, errutinaren morroi ez bilakatzeko, mundu aldrebes honi hozka egin nahi dion konpartsa bat izatea, zeren eta jaietatik ere, herri aske bat eraikitzen dugu egunez egun: euskaraz eginez, belaunaldiarteko harremanak sustatuz, jai feminista eta ezkertiarak bultzatuz, kanta eta dantza eginez, independentzia aldarrikatuz, presoak jaietan nahi ditugula gogoratuz, herri mugimendutik antolatuz...

### Berbaizu Euskara Elkarte

Aurten ere argi utzi dugu euriak ezin gaituela gelditu, aitzitik, indartu egiten gaitu. Gorputzak askatuta eta lotsak baztertuta, euripean dantzan hasi genituen jaiak. Jaitsieran, Txantxiku aisialdi taldeko kideok putzuetan jauzi eta jauzi iritsi ginen txosnagunera.

Izan ere, oihanean murgilduta gozatu dugu abentura hau, natura bete-bete gure elkarzale bihurtu baitugu. Oihanean gu geu izan gara eta erakutsi dugu, kosta ahala kosta, gure mundu polit txiki honetan posible dugula euskara hutsean bizitzea. Jarrai dezagun oihanean murgiltzen eta jaietz gozaten Berbaizu eta Txantxikurekin. Gora Deustuko jai herriko eta euskaldunak!

### Gazte Alai Aisialdi Taldea

Ayy Deustu, oraindik aje emozionalarekin jarraitzen dugu eta jaietan erabili dugun arropa guztia lehortzen dabil oraindik ere, txaparrada etengabea bizi izan dugulako. Hala ere, jaiak asko disfrutatuta ditugu eta gehiago bizitzeko gogoz geratu gara.

egon gara -munduko arrozak, tomatada eta tortillak-, baita astean zehar egondako herri kiroletan eta bertso saioetan ere. Horrez gain, igandeetako eskupilota eta saski txapelketak ere asko disfrutatuta ditugu.

Bestalde, gogotsu parte hartu dugu Deustuko Jai Bartzordeak antolatutako ekintza eta jarduera guztietan. Hala nola, asteburuetako gastronomia txapelketetan

Orain jaietara handiarekin eman diegu agurra, baina hurrengo urterako prest gaude, oso gogotsu. Gora Gazte Alai Aisialdi Taldea!

www.pabellon6.org

**P6**

APIRILAREN 11tik  
MAIATZAREN 11ra  
del 11 de ABRIL  
al 11 de MAYO

ANTZERKI  
ARINA

XII  
edizioa  
edición

ARTE ESZENIKOAK

## PARE Deustuko Gazte Talde Feminista

Ostiraleko 20:00ak ziren eta Deustualdeko Gazte Feministak prest geuden pregoia entzun, txupina bota eta jaiei hasiera emateko. Bajadarekn batera eta nahi baino ohikoagoa en euriaz burtutako jai giroaz ekin genien jaiei, eta Botikazar parkera heldu bezain pronto ireki genuen txosna feminista. Bertan, ispilu handi bat eta “Denok izan gara erasotuak baina inork ez du lagun eraotzailerik, KONTUEK EZ DUTE EMATEN!” leloa gainean idatzita. Kañak ateratzen hasi eta berehala, gazte feministok txosnagunean gure lekua hartu eta kontzertuko lehen lerroa gurea egin genuen. Dantza eta aldarrikapen gaua izan zen.

Jaietan zehar hainbat eta hainbat izan dira gozatu ditugun ekintzak: Munduko Arrozak txapelketa gastronomikoa, Olatz Salvadorren kontzertua, Emakumeen aureskua...

Aprobetxatu nahi dugu gurekin batera jaietan gozatu, laguntza eskaini eta zaindu gaituzuen guztiei eskerrak emateko, baita gure txisnara hurbildu eta Bingo Feministan parte hartu zein PARE PEC txupittoa hartu duzuenoi. Bada, jai feministak aldarrikatzen jarraitzen duzuenoi. Gora Deustuko jai herrikoi, parekide eta parte hartzaileak! Eta... que el ritmo no PARE!

## Matxingorri Gazte Konpartsa

Lehertu du txupinak beste urte batez Deustun eta gazte independentistok buru belarri izan gara jai herrikoi hauen bueltan. Argi dugu, soilik ongi antolatutako herriak lor ditzakeela jai handiak. Gurean, erakusleho ederra da Martxoan herri hau loratzeko dagoen gaitasuna.

Eguneko egitarau dotoreez gozatu dugu Done Petri plazan, izan ere, egitarau oparoa izan baita ekintza

anitzez josia. Gauerdian, dantzan zein kantuan ibili gara eta topa egin dugu Matxingorriko txosnan. “Askatasunak badauka herri honetan Txosna bat” izan da gure aurtengo leloa.

Deustu eta Euskal Herri aske bat irabaztera goazen gazte ameslariok Matxingorri Gazte Konpartsa dugu elkargune. Aisialdia eta jai herrikoiak balio eraldatzailez bizi eta aldarrikatzen ibili gara, betiko legez.

## Deustuko Gazte Lokala

Martxoaren 14tik 24ra, Gazte Lokalak Deustuko Jaie-tan aktiboki parte hartu dugu: txosna jarri, Munduko Arrozak gastronomikoan parte hartu eta beste hainbat ekintzatan lagundu dugu. Horrez gain, Gazte Lokalean egitarau propioa antolatu dugu, gazteen (eta ez hain gazteen) grinari esker.

Lehen asteburuan, GKS eragileak jaialdi bat antolatu zuen barikuan. Zapatuan, Samalda Da! egun berezia ospatu genuen: eguerditik gauera arte, Gazte Lokala elkargune bilakatu zen. Bazkarian indarrak hartu, sortu

berri den ‘Nuen Maite’ irratia lehene saioa aieratu, eta iluntzean, musika eta festa auzora zabaldu genituen, Zaunka, Calzados Deportivo, Nebula Selektah eta Aitor (Müll) artisten erritmo eta estilo anitzekin.

Bigarren asteburuan ere Deustuko merkatu zaharrak bizirik jarraitzen duela erakutsi izan genuen. Barikuan, urteroko Bertsio Gauak jendearen gogoia eta kanturako grina piztu zituen, eta zapatuan, Patiren Lagunek elkartasun jaialdia antolatu zuten, non jaiei amaiera eman zitzaion.

## Deustuko Jai Batzordea

Programak diseinatu, komertzioetatik pasatu, azpiegitura kontratatu. Kartelak pegatu, txosnak muntatu, egitaraua lotu. Udaletxea eraiki, txandak banatu, banderaxoak eskegi. Deustuko jaiak antolatzeak hilabeteetako lana dakar. Ez da erreza jakitea formatu bat ala beste egokiagoa izango den, ordutegi hau edo beste aproposagoa izango den... Baina erabakiak hartu behar dira, eta iritzia iritzi, aurrera goaz jai batzordeko mahaia osatzen dugun 20tik gorako kideok. Eta aurten, zalantzarik gabe, asmatu egin dugu.

Agian, eguraldiak ez du asteburuak aukeratzen asmatu eta, hala ere, txapelketa gastronomikoetan plaza lepo egon da. Bai haur bai helduen play-backean parte

hartze kopurua eta showen maila izugarri igo da. Euskal dantzek ez dute etenik izan. Txikienak ibili dira pailazo, mago eta ginkana artean. Gozatu dugu kontzertu bakoitzeko. Frontoia estadio bilakatu da eskupilotako eta saskibaloiko finalak animatzen. Ikusi ditugu milaka zapi gorri jantzita, aurrera eta atzera. Elkartu gara aurten ere kuadrilletan, eta aiiiiii kuadrillak, a zer nolako giroa ematen diezuen 10 egun hauei.

Eskerrik asko deustuar guztioi egin duzuen txanda, ekarpen, plater eta dantza bakoitzeko. Jai Batzordeko kideok inoiz baino indartsuago helden diegu aurten balorazioari eta hurrengo egitasmoak antolatzeari. Gora Deustuko Jaiak!

## PUNTU ETA JARRAI

Testua: Ainhoa Maiztegi

Badira hiru urte bi hilabete behin idatzi ditudan testuen amaieran beti ikusten duzuen borobiltxo horretako argakia ateratzeko Nerea eta biok geratu ginenetik.

Momentu hartan fin aritzen ziren Prest!-eko lankideek filtro edota presio gabeko honako espazio hau eskaini zidaten, kalean gehien aipatzen diren gaiei buruz hausnartzeko, tabuak apurtzen saiatzeko eta hainbat gogoeta idatziz uzteko.

Hasieratik gardentasunez aritzen saiatu banaiz ere, badut sentrazioa osasuna ulertzeko dudan modua nutrizionistaren ikuspuntutik soilik helarazi dizuedala. Baina, gaur, azken artikulua honetan, Ainhoa hitz egin nahi dizue. Izan ere, nutrizioarekin loturiko bide hau formakuntza jaso baino lehenago hasi nuen. Ainhoa nutrizionista eta Ainhoa pertsona: kate beraren bi katebegiak.

Badut hur-hurreko pertsona bat zeinaren bizitza etengabe baldintzatuta egon zen bere gorputzaren forma eta tamainagatik. Haren ondoan hazi naiz ni. Horrek goiz-goizetik ikusarazi zidan osasuna baskulak zehazten duen zenbakia baino askoz gehiago dela. Gertutik ikusi nituen horrelakoak: medikua- ren kontsultan jasotako menuak hozkailuan itsatsita izatea, gorputz-neurri jakinei eran-

tzun behar izatea espazio edo ekintza zehatz batzuetan parte hartzeko eta lotsa eta errua janariarekin zuen harremanean sartzea. Ezintasunez ikusi nuen pisuak, zenbakiak, guztiz baldintzatzen zuela bere ongizatea eta erabat baztertzen zituela osasunaren alde emozionala eta soziala. Hori guztia dela eta, ikuspegi tradizionala auzitan jarri nuen eta beste eredu baten bila jo nuen: errespetua, enpatia eta ongizatearen ikuspegi integratzailearen bidetik pertsonak lagunduko zituen eredu baten bila, hain zuzen ere.

Lehen hilekoa izan nuenetik, oso hileko mingarriak pairatu izan ditut, behin baino gehiagotan konortea galtzeraino. Antisorgailuak izan ziren kontsultatik jaso nuen erantzun bakarra, bestelako azalpen eta aukerarik gabe. Nire inguruan, beste neska batzuek ere beste horrenbeste pairatzen zuten: ziklo irregularrak, normaltzat hartutako min menstrualak eta gure ongizate hormonalean jarduera fisikoaren, elikaduraren, atsedenearen edo osasun emozionalaren eragina aintzat hartzen ez zuen osasun-sistema. Horregatik, ikuspegi integratzaile baten gabezia edo hutsuneagatik, denborarekin, ezarritakoaz haragoko erantzunak bilatzera abiatu nintzen eta emakumeen beharrezan aintzat hartu eta artatuko zituen laguntza-modu batekin engaiatzera.






# harkua bete herba

Denboraren poderioz, horregatik guztiengatik, emakumearen osasunean, haren ongizate hormonalean eta errendimenduan espezializatu nintzen, bizi izandakoaz gain, nire inguruan gehiegitan ikusi dudalako aintzat ez hartutako edo alde batera utzitako benetako beharrianak. Oraindik ere behar dugulako entzuten duen eta osasuna agerikoa edo begien bistakoa dena baino haratago ulertzen duen ikuspegia.

Opari bat izan da niretzat hiru urte hauetan hemen idaztea. Aukera eman didazue nutrizioa eta ongizatea ulertzeko bestelako ikuspegi bat partekatzeko, hausnartzeko eta orriotara ekartzeko. Espero dut baten batengan oihartzuna eduki izana. Nire dibulgazio-lanak ez du etenik, inoiz baino aktiboago ari da, baina orain txoko honi agur esan beharrean nago. Neure eskerrikerioenak, irakurleok, irakurtzeagatik, neurekin batera zalantza egiteagatik eta bestaldean egoteagatik. Berrito elkartuko gara.



**Ainhoa Maiztegi**

 @ainhoamaiztegi.nutricion



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean

Zatoz gure eskaintza  
berria probatzera!



Astelehena - Asteartea - Asteazkena  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 22:00

Osteguna - Ostirala  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 01:00

Larunbata  
18:00 - 22:00

@deustukoherrikotaberna

Ramon y Cajal 29 - DEUSTU

ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**JON INTXAURRAGA**

*Irakasle*

## ZINEMA KLASIKOA ETB1EN, ARRAKASTA!

Zurrumurru bat aditzen da zinemazale txoko guztietan. “Bultzada dezagun euskara” dio batek, “nolaz?” besteak, “klasikoak euskaraz jarritz” azkenak. Bolo-bolo dabil aldarria: “Klasikoak gure hizkuntzan” entzuten da Golemetan, “hori behar dugu” Victoria zinemetan; “Premiazkoa duzu” Maule Baithan. “Meza Santua”-k erakutsi digu bidea: sarreran bideo bukoliko moloi bat eta ostean, mamira. Eta La2eko “Días de Cine Clásico”-k erueda.

Pelikulak ikusteko bi modu leudeke: bikoizketa eta jatorrizko bertsioan azpigitulata. Horrela bada, sektoreari bultzada emango genioke, eta “Azpigituluak euskaraz” taldekoek sortutako altxor parebakoa baliatuko genuke. Bestalde, euskara ikasten ari direnek hizkuntza hobetzeko tresna izango lukete, “English speaking”-eko modernoek euskarara hurreratzeko amua eta “Pantailak euskaraz” pozik, noski!

Gamelu onek bezala, hasieran dosi txikitan banatuko genuke: saioa hilean behin emititu eta noizbehinka zuzenekoak egin Euskal Herrian zehar publikoagaz (aurkezlea, filmaren nondik norakoak azaltzen bi aditu eta ikusleekin iritzi-trukea). Formula bikaina. Aurrekariak egon badaude, Bilbon klasikoak pantaila handian emititzen zituen BBK Aretoak eta esan gabe doa leporaino betetzen zela.

Izan ere, zinema klasiko gose handia dago inguruan; ez da besterik entzuten bazterrotan. Horregatik, EITBko zuzendariak pausu bat eman behar dute aurrera euskarari bultzada emango badiote. Bada, ETB2n western pelikulak arrakastatsuak izan ziren, zergatik ez “Klasikoak gure hizkuntzan” ETB1en?

*Doinua: Nigarrez sortu nintzen*



**DEUSTUKO IKASTOLAKO  
DBH1.MAILAKO IKASLEAK**  
*Elorri bertso-eskolako kideak*

Erlojuari begira  
zelako mania.  
Denbora ez da pasatzen  
da aspergarria.  
Goizetik esnatzen naiz  
ez da ezer berria.  
Ta gure errutina  
da monotonia.

Nahi ditugu erloju  
guztiak apurtu  
Gure kezka guztien  
buklea bukatu.  
Nahi ez duzuna kendu  
nahi duzuna hartu.  
Denbora azkar doa  
bizitzaz gozatu!



## Gure ikasleen ahotan

### *“Basque Culinary Centerren jasotzen dugun prestakuntza berritzailea eta praktikoa da”*



#### **Gorka Pablo Blanco**

*Irún, 22 urte*

**Gradua:** Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak

#### **Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak graduako X.mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gastronomiako gradua?**

Txikitatik beti gustatu izan zait sukaldaritza. Nire familiarekin janaria prestatzeko eta partekatzeko momentuak beti izan dira oso bereziak, eta horrek janariarekin lotutako interesa eta pasioa sortu zizkidan. Horregatik erabaki nuen gradu hori aukeratzeko.

#### **Eta zergatik Basque Culinary Center-Mondragon Unibertsitatean?**

Lehenik eta behin, mundu mailan sukaldaritzaren eta gastronomiaren alorrean prestigio handiena duen unibertsitateetako bat da, eta bertan jasotzen den prestakuntza berritzailea eta praktikoa da. Gainera, metodologia aurreratuak erabiltzen ditu, eta ikasleak benetako erronkei aurre egitera bideratzen ditu.

#### **Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**

Bikaina, irakatsi dizkiguten gauzak oso interesgarriak dira, eta seguru etorkizunerako oso erabilgarriak izango direla. Irakasleak lan handia egiten dute ikasle guztiok ikas dezagun.

#### **Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?**

Metodologiak bi zati ditu: praktika eta teoria. Praktika aldetik asko egiten da. Lantegi asko daude espezialitate desberdinekin: sukaldaritza, zerbitzua, okindegia, eta abar. Talde lanak oso garrantzitsuak dira, funtsezko oinarria arrakasta lortzeko.

#### **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Sukaldaritza lantegia. Esperientzia oso onak ditugu bertan.



#### **Egin dituzu praktikak, nolakoak izan dira?**

Bikainak. Hasieratik, laguntza handia eman zidaten, eta beti prest egon ziren zalantzak argitzeko eta ikasteko aukera gehiago eskaintzeko. Giroa oso atsegina izan zen, eta langileekin harreman oso ona.

#### **Zer-nolako ekarpena egin dizu praktikak egiteak?**

Sukaldaritza ez da soilik kozinatzea eta kito, prozesu asko gehiago daude. Gainera, eguneroko erronkei aurre egiteak eta taldean lan egiteak nire trebetasunak garatzen lagundu didate, etorkizunerako oso baliagarria izango da.

#### **Etorkizunari begira zer asmo dituzu?**

Nahiko nuke sukaldaritzan nire trebetasunak hobetzea, baita kalitatezko jatetxe batean lan egin ahal izatea ere. Jendeak janari goza dezala lagundu nahi dut, eta badakit ahalegina bere fruituak ekarriko dituela.





# BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

**LABORAL Kutxan** eta **AMA Tolosan** bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.



Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta 2 laguntzako **gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu** batean\*.



**HARTU PARTE HEMEN:**

[laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa](http://laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa)

\*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urteik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako, AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak [laboralkutxa.eus](http://laboralkutxa.eus) webgunean.

  
**LABORAL**  
kutxa

**Bada beste modu bat**



# BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko  
oliba-olio birjina estra, kontserbak,  
ardo, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz  
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

# DENONA DA ONURA

  
errigora

EGIN ESKAERA! >>>

**Martxoak 10-26 / [errigora.eus](http://errigora.eus)**

